



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

PRENTSA-OHARRA

BGPk astelehenean hasiko ditu Metroaren Plentziako geltokiaren ondoan dagoen Gurutze Gorriaren eraikina eraisteko lanak

- **Lanak hiru egun luzatuko dira, eta amaitzen direnean, aurri egoeran dagoen eraikinak gaur egun hartzen duen espazioa hutsik geratuko da.**

Bilbo, 2015eko azaroaren 26a.

Bizkaiko Garraio Partzuergoa azaroaren 30ean, astelehenean, hasiko da eraisten “Gurutze Gorriaren eraikina eta -20 taberna” bezala ezagutzen diren higiezinak, Metro Bilbaoren Plentziako geltokiaren ondoan daudenak.

Eraikin horiek aurri egoeran daudela adierazi du Plentziako Udalak, eta ez dutela inolako babes-elementurik. Bada, eraitsi ostean, geltokiaren ondoan espazio bat hutsik geratuko denez, Partzuergoak Metro Bilbaoren 1. linearen azken geralekua berritzeko lanak egin ahal izango ditu hurrengo urtean.

Baimen egokiak jaso ondoren, Garraio Partzuergoak atzo jakinarazi zion Plentziako Udalarari eraispen lanak astelehenean hasiko direla; lan horien aurrekontua 12.000 euro da, eta hiru egunetan amaituko dira.

Dena den, lanek ez dute eraginik izango geltokiaren inguruan. Aste Santutik gaur arte Plentzia eta Sopela geltokien arteko lotura zerbitzua geratzen da geltoki horretan.